

# Azarokoa



# Azarokoa

**irudiak:**

IRRIMARRA ilustrazioa

**ipaina:**

Yolanda Arrieta



**BOOKTEGI**  
*Guztion liburua, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

Pipitaki-papataki,  
nik badakit gauza bat:  
beltz-beltza da  
baina gorputzik gabea





—Mamua? —galdetu du Ihintzak?

—Antzekoa —erantzun diot—. Urtearen azkenaurreko hilabeteaz jabetzen da. Merienda jatean, hemen da. Goizean eskolara zoazenean, atzetik doakizu. Eta egunez egun handitzen da...



Ihintzak begiak zabal-zabal jarri ditu.

—Nondik dator, baina? —galdetu dit.

—E... Galdera ederra... —aitortu diot,  
erantzun egoki baten bila—. Ez dator  
inondik. Gurekin bizi da.

Ihintzaren begiak are gehiago handitu  
dira.

—Non? —galdetu dit, alde guztietara  
begira—. Hemen? Etxean?

—E... Bai eta ez... —esan diot—.  
Munduan bizi da.





lhintza haserretu egin da pixka bat.

—«Bai eta ez...» —errepikatu du, eskuak gora jasota—. Hori ez da pista bat!

—Munduan bizi dela, bai, ordea! —erantzun diot berehala.

—Jope! —gehitu du lhintzak, inguruetara begira—. Zer demontre ote da?!

—Bapo? —galdetu diot, ume txikiei galdetzen zaien bezala.

—Zer bapo eta zer bapo-ondo! —erantzun dit berak, indartsu—.

Eman pista gehiago!

—Pista gehiago... Ea...



Tartetxo bat hartu dut datu bila.  
Asmakizun batek aztarnak utzi  
behar ditu igarleak erantzuna  
asma dezan: ez du dena  
erakutsi behar. Hasierako  
esaldiei jarraitu diet, bada:

Gurekin dagoenean  
besteekin ez dago





—Zer?! —Ihintzak zuzen-zuzen begiratu dit—. Zer pista-klase da hori?!

—Zera... —hasi naiz—. Munduaren alde honetan dabilenean, bestean...

—Bestean, zer?

—Ba bestean... ez da nabaritzen...

—Negua! —bota du Ihintzak—. Datorren hilabetean helduko da hona...

—E... Epel —esan diot—. Hau da, erantzunetik gertu dagoela.





lhintza ahots gora hizketan hasi da,  
korrika-korrika:

—Hemen negua denean, bestean  
uda da, ezta?

—Bai, eta? —esan diot, hausnartzen  
jarraitzeko animoak emanez.

—Eta... —lhintzak muturra okertu du,  
mihia atera du, ahoa mugitu du—.

Eta...

Apur bat laguntzea erabaki dut:

—Eta beste hemisferioan eguna  
denean hemen zer da?

—Gaua!

—Bai, eta gaua zer da?



lhintzak burua tente-tente begiratu dit esanez bezala «zer uste duzu, tuntuna naizela?». Gero zera erantzun dit, begiak itxita:

—Gaua iluna da. Mundu guztiak daki hori.

—Hori da! —oihu egin diot—.

Iluna, *iluntasuna* da erantzuna.





lhintza apur bat aho-zabalik  
geratu da. Gero, pista guztiak  
gogoratu ditu:

—Beltz-beltza da, baina gorputzik  
gabea, mamu baten antzekoa,  
urtearen azkenaurreko hilabeteaz  
jabetzen da, merienda jatean  
hemen da, goizean eskolara  
zoazenean atzetik doakizu,  
munduan bizi da, baina txandaka  
bezala agertzen da...





lhintza eta biok leihotik begira  
geratu gara.

—Marraztuko dugu *Iluntasuna*,  
pertsoneia bat balitz bezala?

—galdetu dit, bat-batean,  
begiak handi-handi eta  
irribarrea ahoan.

Ez dit erantzuteko astirik eman:  
paper eta margo bila joan da.





**BOOKTEGI**

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eu](http://booktegi.eu)